**Fontan Racorería, S.A. enpresak «racorería» delakoaren biltegia eta eta beraien muntaketarako instalazioa jartzeko egiten duen jarduera-lizentzia eskaerari buruzko iragarkia.**

Ondoren aipatzen den enpresak jarduera irekitzeko udal-lizentzia eskatu du; honen bidez aditzera ematen da, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 58.1 artikuluan xedatutako ondoreetarako. eskaera horren xehetasunak hauek dira:

— Eskatzailea: Eder Lavín Santillano Fontan Racorería, S.A.ren izenean.

— Jarduera: «racorería» delakoaren biltegia eta beraien muntaketa.

— Tokia: Ugarte industrialdeko, C-6.

Hori argitara ematen dugu, norbaitek uste badu instalazio horrek kalterik sortzen diola, erreklamazio egokiak egin ditzan, idatziz, Udaletxeko bulegoetan; horretarako, 15 egun izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitzaratzen den egunetik aurrera.

Zaratamon, 2017ko urtarrilaren 17an.—Alkatea, Jon Ajuria Fisure

(II-229)

**Anuncio relativo a la solicitud de licencia de actividad formulada por Fontan Racorería, S.A. para la instalación de almacén de racorería y montaje de los mismos.**

A los efectos del artículo 58.1 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, se hace saber que se ha solicitado licencia municipal de apertura por la persona/empresa y para la actividad que a continuación se cita:

— Solicitante: Eder Lavín Santillano en representación de Fontán Racorería, S.A.

— Actividad: Almacén de racorería y montaje de los mismos.

— Lugar: P.I. Ugarte, C-6.

Lo que se hace público para que quienes se consideren de algún modo perjudicados por la referida instalación, puedan hacer por escrito las reclamaciones pertinentes en las oficinas del Ayuntamiento, en el plazo de 15 días siguientes a la publicación del anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Zaratamo, a 17 de enero de 2017.—El Alcalde, Jon Ajuria Fisure

(II-229)

## Gorlizko Udala

**Erabilera publikoko guneetan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza.**

Gorlizko Udalbatzak, 2016ko abenduaren 29ko ez-ohiko bilkuran, aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, behin betiko onartu zuen, akordio bidez, «erabilera publikoko guneetan terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza»ren testuaren azken idazketa. Eta hori guztia jendaurrean jartzen da herritarrek jakin dezaten, hala ezartzen baita Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan.

Ordenantzaren testu osoa argitaratu ondoren sartuko da indarrean, betiere Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluak 65.2 artikuluarekiko aurreikusitako epea igarota.

Gorlizen, 2017ko urtarrilaren 18an.—Alkatea, Arantza Etxebarria Villabeitia

### ERABILERA PUBLIKOKO GUNEETAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

SARRERA

Ordenantza berri honen helburua gure auzoetako hiri-eremuan jarduera handiagoa garatzea eragiten duten ekimen zehatzak sustatzeko xedearen barruan sartzen da, dinamismo ekonomiko handiagoa bultzatze aldera, eta aldi berean, espazio publikoak eta horien hirigintza modu harmoniko eta orekatuan antolatzen ahaleginduz.

Azken batean, kontua da modu antolatuan Gorliz atseginago bat sortzea, praktikoagoa eta erosoagoa herritarrentzat, gure auzoen aktibazioa, gozamena eta aprobetxamendua bilatuz neguan ere, udalerriko espazio estrategikoetan ostalaritza-terraza estaliak instalatuz.

Ordenantza berri honekin, beste neurri batzuekin batera, espazio publikoen aprobetxamendu iraunkorra bilatzera bideratutako zenbait neurri ezartzera lagundu nahi da.

Laburpen gisa, asmoa da oinezkoentzako espazio publikoa banatzea, instalazioen estetika kokatuta dauden inguruetara egokitzea, Gorlizko hiri-espazioari erakargarritasun berezia emanez eta bisitariek eta tokiko biztanleek antzematen duten kalitate orokorra hobetuz. Hala, berezko nortasuna emango zaie espazio publikoen giropenean eragin bisual handia duten instalazioei.

## Ayuntamiento de Gorliz

**Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en espacios de uso público.**

El Pleno del Ayuntamiento de Gorliz, en sesión extraordinaria celebrada el 29 de diciembre de 2016, acordó aprobar definitivamente la redacción final del texto de la «ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en espacios de uso público», una vez resueltas las alegaciones presentadas, lo que se hace público para su general conocimiento y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado el texto íntegro y transcurrido el plazo previsto en el artículo 70.2 en relación con el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

En Gorliz, a 18 de enero de 2017.—La Alcaldesa, Arantza Etxebarria Villabeitia

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO

PREÁMBULO

La finalidad de esta nueva Ordenanza se enmarca dentro del objetivo de impulsar iniciativas concretas que redunden en el desarrollo de una mayor actividad en el ámbito urbano de nuestros barrios, a fin de propiciar un mayor dinamismo económico y paralelamente, tratando de ordenar los espacios públicos y su urbanismo de manera armónica y equilibrada.

Se trata, en definitiva, de propiciar de manera ordenada un Gorliz más amable, práctico y acogedor para la ciudadanía, buscando el disfrute, aprovechamiento y activación de nuestros barrios también en invierno a través de la instalación de terrazas de hostelería cubiertas en los espacios estratégicos del municipio.

Con esta nueva ordenanza se pretende contribuir, junto con otras medidas el establecimiento de una serie de medidas tendentes a buscar un aprovechamiento sostenible de los espacios públicos

Como resumen, la pretensión es distribuir el espacio peatonal y público, adecuar la estéticas de las instalaciones al entorno de sus emplazamientos dotando de una atractivo singular el espacio urbano de Gorliz y mejorando la calidad general apercibida por el visitante y la población local dotando de personalidad propia estas instalaciones de gran impacto visual en la ambientación de los espacios públicos.

cve: BAO-BOB-2017a017

I. TITULUA

## ORDENANTZA APLIKATZEKOA: XEDEA, IZAERA, EREMUA ETA BAZTERKETAK

### 1. artikulua.—*Xedea eta definizioak*

1. Ordenantza honen helburua bide publikoan edo erabilera publikoko espazio pribatuetan terraza eta instalazio osagarriak jartzearen araubide juridikoa eta teknikoa ezartzea da, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoaren arabera; Hirigintza-diziplinaren Arautegia onartu zuen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua; Euskal Autonomi Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea; 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua; Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Gorlizko Plangintzako Arau Subsidiarioak; Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Autonomi Erkidegoko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eta abarren irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

2. Ordenantza honen ondorioetarako, honela definitzen dira elementu hauek:

— Terraza: mahai, aulki, taburete eta behin-behineko instalazio eta instalazio mugikorren multzoa (finkoak ez direnak eta erraz desmuntatu daitezkeenak), bere lizentzian ostalaritza erabilera jasota duten ostalaritzaren edo alderdi politikoen egoitza sozialen eremuan legeztatutako jarduera baten aldi baterako osagarri direnak.

— Kanpoko barra: establezimendu publikoen kanpoaldean jarritako behin-behineko instalazioak, ostalaritza zerbitzuak emateko (edariak, latak, bokatak, eta abar prestatzea edota saltzea).

— Kanpoko zerbitzua: ostalaritza zerbitzuak ematea, lokalen atarian edo kanpoaldean, irekidura eta leihoen bidez, horretarako behin-behineko elementuak instalatzea beharrezkoa izan edo ez.

— Behin-behineko instalazioa: finkoak ez diren eta erraz desmuntatu daitezkeen instalazio gisa hartutakoak, terraza baten parte direnak eta egunero desmuntatu edo kendu behar ez direnak.

— Instalazio mugikorra: finkoak ez diren eta erraz desmuntatu daitezkeen instalazio gisa hartutakoak, terraza baten parte direnak eta egunero kendu behar direnak.

— Estaldurak: sabaia duten behin-behineko instalazioak dira (onartutako materialekoak), espaloira ainguratutako zutikoen gainean, ordenantza honetan arautuko terrazak estaltzeko. EZ dira definizio honetan sartzen jaso daitezkeen toldoak edo fatxadan soilik eutsitako egitura finkoko toldoak, ezta eguzkitakoak ere.

### 2. artikulua.—*Izaera juridikoa*

Bide publikoaren okupazioek eta aprobetxamenduek erabilera komun bereziko kategoria juridikoa dute eta jabetza eskubidea salbu ematen dira, hirugarrenik kaltetu gabe. Hala, horiek gauzatzeko, aurretiazko udal lizentzia behar da, ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango dena.

Partikularrak ez dauka eskubiderik baimena emateko. Beraz, ematea aukerakoa da, udalak ematen duen ebazpenaren beharrezko justifikazioa gorabehera.

Baimena emateko, eta horren terminoak, epeak eta baldintza fisiko eta teknikoak ezartzeko (hedadura, ordutegia, ezaugarriak edo beste edozein) bermatu beharko da, lehentasunez, okupatuko den espazioaren erabilera nagusiarekin zuzenean lotutako interes publikoa –oinezkoen zirkulazio librea edota, hala badagokio, ibilgailuena-. Gainera, jotzen da lizentziak prekarioan eman direla; hala, interes publikoko arrazoiengatik baliogabetu ahal dira, kalteordainketarako eskubiderik gabe.

Lurzoru publikoa okupatzeko baimendu daitezkeen epeak alda daitezke jarduera turistikoak egiteagatik edo jaiak ospatzeagatik, obrengatik edota udalak antolatutako jarduera publikoengatik. Era

TÍTULO I

## DE APLICACIÓN DE LA ORDENANZA: OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO Y EXCLUSIONES

### Artículo 1.—*Objeto y definiciones*

1. Es objeto de esta Ordenanza establecer el régimen jurídico y técnico de la instalación en la vía pública o en espacios privados de uso público de terrazas e instalaciones complementarias al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Real Decreto 2187/1978, de 23 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Disciplina Urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, el Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en el desarrollo de la Ley 2/2006, el Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de suela, las Normas Subsidiarias del Planeamiento de Gorliz , la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, del País Vasco sobre promoción de la accesibilidad y el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, etc.

2. A los efectos de la presente Ordenanza, se entienden como:

— Terraza: El conjunto de mesas, sillas, taburetes e instalaciones provisiones e instalaciones móviles (entendidas como no fijas y fácilmente desmontables), que sirvan de complemento temporal a una actividad legalizada en el ramo de la hostelería o sedes sociales de partidos políticos que tenga incluido el uso hostelero en su licencia.

— Barra exterior: Las instalaciones provisionales colocadas en el exterior de los establecimientos públicos, para la prestación de servicios de hostelería (preparado y/o venta de bebida, latas, bocadillos, etc.).

— Servicio al exterior: La prestación de servicios de hostelerías, en el umbral de los locales o en el exterior, a través de aperturas y ventanas, siendo o no necesaria la instalación de elementos provisionales para ello.

— Instalación provisional: Son las instalaciones entendidas como no fijas y fácilmente desmontables que forman parte de una terraza, y que no deben desmontarse o retirarse diariamente.

— Instalación móvil: Son las instalaciones entendidas como no fijas y fácilmente desmontables que forman parte de una terraza, y que deben ser retiradas diariamente.

— Cubriciones: Son instalaciones provisionales que disponen de techo (de material admitido) sobre pies derechos anclados a la acera, para la cubrición de las terrazas reguladas en la presente ordenanza. No se incluyen en esta definición los toldos recogibles o de estructura fija sujetos solo en fachada, ni las sombrillas.

### Artículo 2.—*Naturaleza jurídica*

Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y se otorgan salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero y requieren para su ejercicio licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente ordenanza.

El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte por el Ayuntamiento.

Tanto para su autorización, como para el establecimiento de los términos, plazos y condiciones físicas y técnicas de la misma (extensión, horario, características o cualquier otro) deberá garantizarse, de modo preferente, el interés público directamente relacionado con el uso principal del espacio a ocupar —libre circulación de viandantes y/o, en su caso, de vehículos—. Se entienden además, otorgadas en precario y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización.

Los períodos de ocupación de suelo público que pudieran autorizarse podrán verse modificados con ocasión de la realización de actividades turísticas o festivas, realización de obras y/o activida-

cve: BAO-BOB-2017a017

berean, alda daitezke beharrezkoa bada beste interesdun batzuek dituzten eskubideei dagozkien jarduerak egitea, horiek baimentzea administrazio honi badagokio.

**3. artikulua.—*Eremua***

Ordenantza hau erabilera publikoko eremu guztietan aplika daiteke (bide publikoa, gune libreak, berdeguneak, etab.), jabetza publikokoak edo pribatukoak badira ere. Erabilera publikoko izaera egitatezko egoeraren eta indarreko plangintzako zehaztapenen aplikazioaren arabera zehaztuko da.

Udalerriko jaietan baimentzen diren kanpoko barrei ere aplikatuko zaie ordenantza hau, eta, zehazki, III Tituluan ezarritakoa, instalazioaren egutegia, ordutegiak eta gainerako betekizunak urtero dekretu bidez ezar daitezkeen arren, kontuan hartu beharreko egoera edo behar espezifikoen arabera.

Gainera, jarduera lokal baten esparrutik kanpo hedatzeko edozein egoeratan aplika daiteke, lursail pribatuan burutzen den arren.

**4. artikulua.-Baztertzeak**

Araudi hau ez zaie aplikatuko, 1. Artikuluan adierazitako definizioan sartuta egon arren, jarduera legitimatzen duen dagokion lizentziaren arabera garatutako jardueren osagarriak diren instalazioei.

## II. TITULUA

## TERRAZEN INSTALAZIOARENA

### I. KAPITULUA

### INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

**5. artikulua.—*Instalazioaren baldintza orokorrak***

1. Arau orokor gisa, soilik onartuko da ordenantza honetan deskribatutako ezaugarriak dituzten mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, paperontziak eta estaldurak instalatzea, eta bi metro eta berrogeita hamarreko (2,50) altuera mugarekin.

2. Ezingo dira beren-beregi baimendutako instalazioak ez direnak jarri, dimentsioak bereziki errespetatuz.

3. Debekatuta dago establezimendu mota hauekin lotutako terrazak instalatzea: jolas-aretoak eta billarrak, txokoak, sozietateak eta gazteen aisialdirako gaitutako lokalak.

4. Halaber, debekatuta dago baimendutako terrazaren barruan elementu eta erabilera hauek instalatzea:

a) Ur-edota saneamendu-harguneak.

b) Edozein produktu motako makina automatikoak eta edariak edota janariak prestatzeko instalazio lagungarriak.

c) Irudi —edota soinu— erreproduzigailuen instalazioak, musika-ekipamenduak, bozgorailuak, telebistak edo beste motatako gailuak bezalaxe (ekipo informatikoak, karaokeak, etab.). Hala ere, eta salbuespen gisa, zaindariaren jaiak, tokiko jaiak edo antzekoak ospatzen direnean, musika —edota telebista— ekipamenduak instalatu ahalko dira. Horretarako, berariazko udal baimena izan behar ko du; horrek baldintza espezifikoen ezarpena aurreikusiko du, zaratek bide publikoan izan dezaketen eragina kontuan hartuz, egiten diren gunearen arabera.

Aipatutako baldintzen artean, egokitzat jo litezkeen beste batzuekin batera, sasoi izaera edo denboraldikoa eta ordutegiaren mugapena sar daitezke.

Instalazioa dagokion udal baimenik gabe edo bertan ezarritako baldintzak bete gabe erabiltzekotan, udalak ekitaldia edo jaia eten dezake, dagokion zehapena jartzea gorabehera.

— Kanpoko barrak, ordenantza honen 1. Artikuluaren deskribapenaren arabera.

des públicas organizadas por el Ayuntamiento; asimismo, podrán verse modificadas si resultase precisa la realización de actividades por otros interesados correspondientes a derechos que ostenten cuya autorización corresponda a esta administración.

**Artículo 3.—*Ámbito***

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público, sean de titularidad pública o privada. La condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

A las barras exteriores que pudieran autorizarse durante las fiesta del Municipio, les será de aplicación igualmente la presente ordenanza y en concreto, lo establecido en su Título III, aun cuando el calendario, horarios y demás requisitos de su instalación puedan establecerse anualmente mediante Decreto, en atención a circunstancias o necesidades específicas que hayan de tenerse en cuenta.

También será aplicable a cualquier situación de ampliación de actividad fuera del recinto de un local, aun cuando se realice en terreno privado.

**Artículo 4.—*Exclusiones***

Esta Normativa no será de aplicación a aquellas instalaciones que, aun incluidas en la definición formulada en el artículo 1, sean complementarias de actividades desarrolladas al amparo de la correspondiente licencia que legitime su ejercicio.

## TÍTULO II

## DE LA INSTALACIÓN DE LAS TERRAZAS

### CAPÍTULO I

### CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN

**Artículo 5.—*Condiciones generales de la instalación***

1. Como norma general sólo se admitirá la instalación de mesas, sillas, sombrillas, papeleras y cubriciones con las características descritas en la presente ordenanza y con un límite de altura de dos metros con cincuenta (2,50) metros.

2. No podrán realizarse instalaciones distintas de las expresamente autorizadas, respetando especial atención a sus dimensiones.

3. Queda prohibida la instalación de terrazas vinculadas a los siguientes establecimientos: salas de juegos y billares, txokos, sociedades y lonjas habilitadas para el ocio de jóvenes.

4. Queda igualmente prohibidas la instalación dentro de la terraza autorizada de los siguientes elementos y usos:

a) Acometidas de suministro de agua y/o saneamiento.

b) Máquinas expendedoras de cualquier clase de producto y las instalaciones auxiliares de preparación de bebidas y/o comidas.

c) Instalaciones de aparatos reproductores de imagen y/o sonido, tales como equipos de música, altavoces, televisores o de cualquier otra índole (equipos informáticos, karaokes, etc.). No obstante y con carácter excepcional, con motivo de las fiestas patronales, locales o análogas se podrán instalar equipos de música y/o televisión, para lo cual deberá disponer de autorización municipal expresa, la cual contemplará la imposición de condiciones específicas en atención a la posible incidencia por ruidos en la vía pública según sea la zona donde tenga lugar.

Entre las condiciones citadas se incluirán, entre otras que pudieran estimarse convenientes, el carácter estacional o de temporada y la limitación del horario.

Para el supuesto de que el uso de la instalación se realizara sin la correspondiente autorización municipal o incumpliendo las condiciones establecidas en aquella, el Ayuntamiento, podrá paralizar el acto o fiesta sin perjuicio de la correspondiente sanción.

— Barras exteriores, según la descripción del artículo 1 de la presente ordenanza.

cve: BAO-BOB-2017a017

— Kanpoko zerbitzuak, ordenantza honen 1. Artikuluaren deskribapenaren arabera.

5. Arau orokor gisa, terrazen gehieneko okupazioa parametro hauen araberakoa izango da:

a) Espaloiak, oinezkoentzako espazioak eta atariak:




Terrazak ezingo dira jarri bi metro eta berrogeita hamar (2,50) baino gutxiagoko zabalera duten oinezko espazio edo espaloietan. Terrazaren instalazioak bermatu beharko du metro bat eta laurogei zentimetroko (1,80) gutxieneko oinezko pasabidea, oztopoz libre dagoena. Hirigune finkatuetan —horietan baino ez— eta autonomia erkidegoko arauteriak aurreikusitako baldintzetan, unean uneko estuguneak onartuko dira, baldin eta oztoporik gabeko igarobidea ez bada metro eta berrogeita hamar zentimetrotik (1,50) beherakoa.

Bi metro eta berrogeita hamar zentimetro (2,50) baino gutxiagoko zabalera duten oinezko espazio edo espaloietan, mahai altuak instalatu ahalko dira, metro bat eta laurogei zentimetroko (1,80) gutxieneko oinezkoentzako pasabidea bermatuz, oztopoz libre dagoena, eta egunero kendu beharko dira. Ez dira horren barruan sartzen upelak, bankuak, aulkiak, ezta beste edozein instalazio ere. Hirigune finkatuetan —horietan baino ez— eta autonomia erkidegoko arauteriak aurreikusitako baldintzetan, unean uneko estuguneak onartuko dira, baldin eta oztoporik gabeko igarobidea ez bada metro eta berrogeita hamar zentimetrotik (1,50) beherakoa.

Bost metro eta erdi (5,50) baino gehiagoko zabalera duten oinezkoentzako espazioetan edo espaloietan instalatzen diren terrazek modu iraunkorrean, eta hala badagokio, hiru metro eta erdiko (3,50) gutxieneko oinezkoentzako pasabidea bermatu beharko dute, edozein oztopoz libre dagoena.

Bost metro eta erdi (5,50) baino gutxiagoko zabalera duten oinezkoentzako espazioetan edo espaloietan instalatzen diren terrazek ezingo dute bi (2,00) metro baino gehiagoko zabalera izan.

Lau (4,00) metro baino gutxiagoko zabalera duten oinezkoentzako espazioetan eta espaloietan, terrazak establezimenduen fatxadara itsatsita instalatu beharko dira. Espazio publikoaren edo espaloiaren zabalera lau (4) metro baino gehiagokoa denean, terraza espaloiaren ertzean kokatu ahalko da.




Ordenantza honen 1., 5. eta 6. artikuluetan deskribatutako terrazen estaldurak ezingo dira fatxadetara itsatsita jarri, ez espaloietan ez oinezkoentzako espazioetan, horiek sei (6) metro baino gutxiagoko zabalera badute.

Nolanahi ere, terrazak ez dira lokal publikoen larrialdietarako irteeren aurrean instalatuko, ezta pasabideen, garraio publikoko geltokien, etxebizitzen edo saltokien sarbideen aurrean ere, besteak beste. Hala, ez dira jarriko 2 metroko zabalera inbadituz oinezkoentzako pasabideen aurrean, Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko

— Servicios al exterior, según la descripción del artículo 1 de la presente ordenanza.

5. Como norma general la ocupación máxima de las terrazas dependerá de los siguientes parámetros:

a) Aceras, espacios peatonales y pórticos:




Las terrazas no podrán colocarse en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a dos con cincuenta (2,50) metros. La instalación de terraza deberá garantizar un paso peatonal mínimo y libre de cualquier obstáculo de uno con ochenta (1,80) metros. Únicamente en zonas urbanas consolidadas, y en las condiciones previstas por la normativa autonómica, se permitirán estrechamientos puntuales, siempre que la anchura libre de paso resultante no sea inferior a uno con cincuenta (1,50) metros.

En aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a dos con cincuenta (2,50) metros, se podrán instalar mesas altas garantizando un paso peatonal mínimo y libre de cualquier obstáculo de uno con ochenta (1,80) metros, y su retirada diaria. Quedan fuera de esta consideración los barriles, bancos, sillas y cualquier otra instalación. Únicamente en zonas urbanas consolidadas, y en las condiciones previstas por la normativa autonómica, se permitirán estrechamientos puntuales, siempre que la anchura libre de paso resultante no sea inferior a uno con cincuenta (1,50) metros.

Las terrazas que se instalen en aceras o espacios peatonales que tenga una anchura superior a cinco metros y medio (5,50), deberán garantizar permanentemente y en todo caso, un paso peatonal mínimo y libre de cualquier obstáculo de tres metros y medios (3,50).

Las terrazas que se instalen en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a 5 metros y medios (5,50), no podrá tener una anchura superior a dos (2,00) metros.

En las aceras y espacios peatonales de un ancho inferior a cuatro (4,00) metros las terrazas deberán instalarse adosada a la fachada del establecimientos. Cuando la anchura de la acera o espacio público sea superior a cuatro (4,00) metros se podrá colocar la terraza en el borde de la acera.




Las cubriciones de las terrazas descritas de los artículos 1, 5 y 6 de la presente ordenanza no podrán colocarse adosadas a la fachada ni en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a seis (6,00) metros.

Las terrazas, en ningún caso se instalarán frente a salidas de emergencia de locales de pública concurrencia, a vados, paradas de transporte público, accesos a viviendas, accesos a comercios, etc., ni se situarán invadiendo un ancho de 2 metros frente a pasos de peatones, a los efectos de preservar los itinerarios peatonales

cve: BAO-BOB-2017a017

68/2000 Dekretuan ezarritako oinezkoentzako ibilbide irisgarriak gordetzeko. Hori guztia, udalak kokatzeko beste aukera bat proposatzen badu modu arrazoituan, irisgarritasun arauak hobeto bermatzen dituena. Oinezkoentzako pasabide hori handi daiteke udalak arrazoitzen badu, ordenantza honen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, oinezkoen zirkulazioaren intentsitateak hori eskatzen duenean.

6. Ezingo da terrazetara bideratutako azalera partzialki edo osorik igotzen duen estratu, oholtza edo plataformarik jarri, udalak baimentzen badu izan ezik, mailen arteko desberdintasunagatik.

7. Terraza osatzen duten elementu mugikorrek (mahaiak, aulkiak, etab.), edonola ere, ez dute eragotziko oinezkoek hiri-altzari publikoak erabiltzea (bankuak, paperontziak, barandak, etab...).

8. Aulki, eguzkitako edo mahaien alboko babesetan, besteak beste, ezingo da jarduerarena ez den iragarkirik agertu, baina bai jardueraren titularraren izena. Babes horiek ezingo dira arriskutsuak izan oinezkoentzat, ezta kalterik edo aldaketarik ere eragin titulartasun publiko edo pribatuko bidean.

9. Oinezkoentzako gune, plaza, espazio libre berezi eta kale berezi bakoitzean ingurura egokitutako altzariak instalatzen saiatuko dira, harmonia estetikoko baldintza espezifikoak aztertuz.

10. Mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, eta abar jartzera bideratutako guneen mugak udalak ezarriko ditu, baimenarekin batera, hala badagokio, emango den dimentsioen plano baten bidez.

11. Nolanahi ere, bide publikoa ezingo da aulki, mahai edo eguzkitako pilekin okupatu, ezta terrazaren beste edozein elementu lagungarriarekin ere, ezinezkoa dela adierazi ezean eta udalak berariazko baimena ematen badu izan ezik. Zentzu horretan, udalak banan-banan aztertuko ditu eskaerak eta kasu bakoitzaren inguruko irizpena emango du.

12. Estalduren hegala eta zutikoak, jaso daitezkeen toldoak, egitura finkoko toldoak eta eguzkitakoak terrazak okupatzen duen azaleraren barruan egongo dira eta, gainerako elementuak bezalaxe, inguruarekin bat datorren estetika izango dute, harmonia estetikoko baldintza espezifikoak aztertuz.

13. Ezingo dira udal zerbitzuak, ondasunak edo obrak ukitu. Behin terraza kenduta, instalazioak zoladura ukitu badu, gehienez ere, astebeteko epean birjarri beharko da.

14. Terrazak okupatutako bide publikoa eta espaloiak garbi egon beharko dira beti; hala, baimenaren titularrari dagokio okupatutako azalera garbitzea. Instalazioaren elementuak ez mantentzeak edo apaindura eta garbitasun baldintzak narriatzeak baimena kentzea ekarriko du, eta horrenbestez, instalazioa kentzea ere bai.

Aipatutako baldintzak mantentzeak elementu guztiei eragiten die; elementu horiek uneoro egon behar dira kontserbazio eta garbitasun egoeran.

**6. artikulua.—*Ainguratutako egituren bidezko estaldurak***

1. Ordenantza honen 1., 5. eta 6. artikuluetan deskribatutako terrazen estaldurak ezingo dira fatxadetara itsatsita jarri sei (6) metro baino gutxiagoko zabalera duten oinezkoentzako espazioetan, ezta espaloietan ere.

2. Ordenantza honen aurreko artikuluen arabera mugatutako espazioa estaldurekin babestu ahalko da, behin-behineko instalazioaren izaera dutenak, erraz desmunta daitezkeenak eta espaloiaren gainean ainguratutakoak. Gainera, horiek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Arau orokor gisa, bi zutiko edo euskarri izango dituzte luzetarako garapeneko lau (4,00) metro bakoitzeko (gutxi gorabehera, ereduen arabera).

b) Edozein zutiko eta espaloiaren bazterraren kanpoko ertzaren arteko distantzia ez da izango hogeita hamar (30) zentimetro baino gutxiagokoa, babes-baranda dagoenean izan ezik. Kasu horretan, hamar (10) zentimetrora murriztu daiteke.

accesibles establecidos en el Decreto 68/2000 de 11 de Abril del Gobierno Vasco, salvo que, excepcionalmente , por el Ayuntamiento se juzgue favorablemente y de forma motivada de otra opción de colocación que mejor garantice las normas de accesibilidad . Esté paso peatonal puede ser ampliado a juicio razonado del Ayuntamiento de acuerdo con lo establecido en el artículo 11 de la presente ordenanza, cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

6. No podrán colocarse ningún tipo de estrados, tarimas, plataformas que eleven en parte o en la totalidad la superficie destinada a las terrazas, salvo autorización municipal por problemas de desnivel.

7. Los elementos móviles que componen la terraza (mesas, sillas, etc.) en ningún caso obstaculizarán la utilización por parte de los viandantes del mobiliarios público urbano (bancos, papeleras, barandillas, etc...).

8. Las protecciones laterales de mesas, sillas, sombrillas, etc., no podrán contener mensajes publicitarios ajenos a la actividad, pero si el nombre del titular de la actividad. Estas protecciones nunca podrán suponer riesgo alguno para los peatones, ni daño o alteración en la vía de titularidad pública o privada.

9. En cada una de las Áreas Peatonales, Plazas, Espacios Libres singulares y calles particulares procurarán instalar un mobiliario acorde con el entorno, estudiando condiciones específicas de armonía estética.

10. Los límites de las zonas destinadas a la colocación de mesas, sillas, sombrillas, etc., serán delimitados por el Ayuntamiento mediante un plano de las dimensiones de que se acompañará a la autorización en su caso.

11. En ningún caso podrá ocuparse la vía pública con pilas de sillas, mesas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza, salvo imposibilidad manifiesta y autorización municipal expresa. En este sentido, el Ayuntamiento estudiará una por una las solicitudes y dictaminará sobra cada caso.

12. El vuelo y pies derechos de las cubriciones, los toldos recogibles, toldos de estructura fija y las sombrillas quedarán dentro de la superficie que ocupe la terraza e, igualmente que el resto de elementos, tendrán na línea estética acorde con el entorno, estudiando condiciones específicas de armonía estética.

13. No podrán afectarse bienes, obras o servicios municipales. Una vez retirada la terraza, se hubiese resultado afectado el pavimento por la instalación, deberá reponerse en un plazo máximo de una semana.

14. la vía pública y aceras ocupadas por la terraza deberán mantenerse en permanente estado de limpieza correspondiendo al titular de la autorización la limpieza de la superficie ocupada. La falta de mantenimiento de los elementos de la instalación o el deterioro en las condiciones de ornato y limpieza implicará la retirada de la autorización y, en consecuencia, de la instalación.

El mantenimiento de las condiciones citas alcanza a todos los elementos que deberán presentar en todo momento un adecuado estado de conservación y limpieza.

**Artículo 6.—*Cubriciones mediante estructuras ancladas***

1. Las cubriciones de las terrazas descritas en los artículos 1, 5 y 6 de la presente ordenanza no podrán colocarse adosados a la fachada ni en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a seis (6,00) metros.

2. El espacio delimitado conforme a los artículos anteriores de la presente Ordenanza, podrá protegerse con cubriciones con carácter de instalación provisional, fácilmente desmontables, y anclados sobre la acera, que reúnan además los requisitos siguientes:

a) Como norma general poseerán dos pies derechos o soportes por cada cuatro (4,00) metros de desarrollo longitudinal (de manera aproximada dependiendo de los modelos).

b) La distancia entre cualquier pie derecho y la arista exterior del borde de la acera, no será inferior a treinta (30) centímetros, salvo cuando exista barandilla de protección, en cuyo caso podrá reducirse a diez (10) centímetros de ésta.

cve: BAO-BOB-2017a017

c) Estalduraren instalazioan irteten den edozein elementuren beheko bazterrak bi metro eta hogeiko (2,20) altuera gainditu beharko du.

3. Estalduren diseinuan, lehentasuna emango zaio bistak izaten jarraitzeari; hala, ez dute hiriaren pertzepzioa oztopatuko, ezta edukiontzi konpaktu gisa operatuko ere.

Egiturazko elementuak ahal bada altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira, altzairurtuzkoak, eta margo akabera izatekotan, oxido motakoa izango da edo udalerriko gainerako hiri-altzarientzat aukeratutako materialekoa. Horretarako, eskaerak dagokion instalazio proiektua barne hartu beharko du eta eragina ebaluatzeko beharrezko infografiak.

Gainerako elementuek bezalaxe, inguruarekin bat datorren estetika izango du, harmonia estetikoko baldintza espezifikoak aztertuz.

4. Instalazio hauek esparrua mugatzen duten eta itsuei instalazioa identifikatzea ahalbidetzen dieten alboko babesak izango dituzte, baldintza hauek betez:

a) Alboko babesak behin-behineko instalazioak izango dira, estaldurarekin eta eusten duen egiturarekin bat datozenak, eta nolanahi ere, inguruko baldintzetara egokituko dira.

b) Elementu zeharrargiekin eraikitako manparek bisualki hori existitzen dela identifikatzen duten elementuak izan behar dituzte.

c) Alboko babesak okupatzen duen horma-atal osoa itxi ahalko du, instalazioaren altuera osora helduz, alboetan eta atzeko partean, betiere ostalaritza-jarduera hartzen duen lokalarengandik hurbilen dagoen terrazaren aurrealdea libre utziz.

5. Estaldurak, horren euskarriek eta alboko babesek ezingo dute dagokion instalazioaren baimendutako zabalera edo luzera gainditu.

6. Udal agintaritza eskudunak estaltzeko eskaera ukatu ahalko du, honako edozein kasutan:

a) Bide segurtasunerako kalteren bat eragiten dutenean (ikusgarritasuna murriztea, edo distrazioa gidarientzat, etab.) edo oinezkoen zirkulazioa nabarmen zailtzen badute.

b) Hurbileko lokalen edo eraikinen segurtasunari eragin ahal dionean (ebakuazioa, etab.); edo

c) Formalki desegokia denean edo inguruarekin bat ez datorrenean, edo hiri-paisaia ondo irakurtzea zailtzen duenean.

7. Hala ere, beste aukera batzuk aurkeztu ahalko dira, oro har adierazitakoen bestelako ezaugarriekin. Udal agintaritzak aztertuko ditu horiek.

**7. artikulua.—*Luzetarako garapena***

Instalazioaren gehieneko luzetarako garapenak, alboko babesak, eta hala badagokio, jardinerak barne, ez du gaindituko jarduera nagusiaren euskarri den establezimenduaren fatxadaren aurrez aurreko luzera, horren alboko establezimenduen idatzizko baimena jasotzen bada izan ezik.

Nolanahi ere, instalazioaren luzetarako garapenak ezingo ditu zortzi (8) metroak gainditu.

**8. artikulua.—*Alboko babesak***

1. Terrazaren instalazioak okupatutako gunea esparrua mugatzen duten eta itsuek oztopoak identifikatzea ahalbidetzen duten alboko babesekin mugarritu beharko da.

2. Alboko babesek ordenantza honen 1. artikuluan deskribatutako behin-behineko instalazioaren izaera dute. Landareak dituzten loreontzien euskarriak onartzen dira terraza mugatzeko elementu gisa, egonkortasuna bermatzeko oinarri egonkor eta finko bat dutenak. Elementu zeharrargiekin eraikitako manparek bisualki hori existitzen dela identifikatzen duten elementuak izan behar dituzte.

3. Alboko kotatzea dispentsatu ahalko da instalazioa funtzio hori modu egokian egiten duten eta aurreko ataletako baldintzak betetzen dituzten hiri-altzarien artean kokatzen bada, jardinerak bezalaxe, besteak beste.

c) El borde inferior de cualquier elemento saliente en la instalación de la cubrición, deberá superar la altura de dos con veinte (2,20) metros.

3. Las cubriciones presentaran además un diseño en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la ciudad ni operen a modo de contenedor compacto.

Los elementos estructurales serán preferentemente de acero inoxidable, fundición, y en el supuesto de acabado en pintura éste será del tipo oxidón o de asignado para el resto del mobiliario urbano del municipio. Par ello la solicitud deberá incluir el correspondiente proyecto de instalación y las infografías necesarias para evaluar el impacto.

Igualmente que el resto de elementos, tendrá una línea estética acorde con el entorno, estudiando condiciones específicas de armonía estética.

4. Estas instalaciones dispondrán de protecciones laterales que acoten el recinto y permitan identificar la instalación a los invidentes, cumpliendo las siguientes condiciones:

a) Las protecciones laterales serán instalaciones provisionales, acordes con la cubrición y estructura que soporta y, en todo caso, adecuadas a las condiciones del entorno.

b) Las mamparas construidas a base de elementos traslúcidos deberán disponer de elementos que identifiquen visualmente la existencia de la misma.

c) La protección lateral podrá cerrar la totalidad del paño que ocupa, alcanzando la altura total de la instalación, en los laterales, y parte posterior, dejando siempre libre el frente de la terraza más próximo al local que albergue la actividad hostelera.

5. La cubrición, sus soportes y sus protecciones laterales, no podrán rebasar el ancho o largo autorizado de la instalación correspondiente.

6. La Autoridad Municipal competente podrá denegar la solicitud de cubrición en cualquiera de los supuestos siguientes:

a) Cuando supongan algún perjuicio para la seguridad viaria (disminución de la visibilidad, o distracción para los conductores etc.) o dificulte sensiblemente el tráfico de los peatones.

b) Cuando pueda afectar a la seguridad de los edificios y locales próximos (evacuación, etc.); o

c) Cuando resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

7. No obstante, cabrá la posibilidad de presentación de otras alternativas con diferentes características a las indicadas con carácter general y que serán estudiadas por la Autoridad Municipal.

**Artículo 7.—*Desarrollo longitudinal***

